

XXXI. BIDEOALDIA

Victoria Eugenia Antzokia 20:00

Ekainak 27

31. edizioan 20tik gora koprodukzio eta 10 produkzio

Larrotxene Kultur Etxeak, Donostia Kulturako zentroak, **Bideoaldia** erabili izan du zine eta bideo ikastaroetako emaitza oparoak jendaurrean ezagutarazteko. 31 urte dira Larrotxeneko bideo espezializazioa martxan jarri zela Intxaurrondo auzoko Larrotxene Kultur Etxean eta dagoeneko ia 500 produkzio inguru ekoiztu dira eta lagundutako koprodukzioak ehunka dira.

Duela bost urte Larrotxenetik Bideoaldia hiriaren erdialdera eramateko egindako apustuari jarraipena emanez aurten **Victoria Eugenia Antzokian** elkartuko gaitu 31. Bideoaldiak, ekainaren 27ko arratsaldeko 20:00etan, sarrera doan izango delarik.

Emanaldi honetarako gonbidapenak Victoria Eugenia Antzokiko leihatilan jaso ahal dira jada ekainaren 20tik (11:30-13:30 / 17:00-20:00). Pertsona bakoitzeko gehienez 8 gonbidapen ahalko dira eskuratu.

Bertan, Larrotxenen ikasturtean zehar landu diren hainbat generotako produkzioen aukeraketa ikusteko parada izango dugu:

Andoni de Carlosek irakasten duen **Gidoigintza Hastapena** ikastaroan landutako *A ESCONDIDAS*, Valerie Quirogak zuzendutako fikzioa.

Michel Gaztambideren Gidoigintza Aurreratua ikastaroan *CERES REVELADA*, Patxi Razquinek egindako fikzioa; *STALINGRADO*, Amaia San Sebastianek egindakoa eta *UN DIA ESPECIAL*, Juanmi Gutierrezen lan berezia.

Pablo Maloren ikasleek *LA PRIMERA VEZ* zuzendu dute **Zine zuzendaritza** ikastaroaren barruan. Eta Andres Robledak zuzendutako lana da.

KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN

Erregina Erregeordea, 8 – 20003 Donostia / San Sebastián
T. (0034) 943 481 151 E. kultura_komunikazioa@donostia.eus
www.donostiakultura.eus

Ander Iriartek Fikzio Zuzendaritza ikastaroa eskaini du aurten eta ikastaro horretan jardundako ikasleek zuzendutako *MULTIVERSOS* film laburra ikusgai izango dugu.

Bestalde, **Oskar Tejedorrek** gidatutako **Dokumentalgintza** ikastaroan landutako hainbat dokumental ikusi ahalko dira:

- NO VEMOS, NO OIMOS, NO NOS MOVEMOS; Jose Luis Bacaicoak zuzendua.
- HAZIA, Vanessa Arambruruk zuzendua.
- ALIADOS, Joana Aduriz eta Mila Morrondok zuzendutakoa.
- IDENTIDAD, Segis Monsok zuzendua.

Programa osatzeko, bere garaian Larrotxenen **Juanmi Gutierrezek** egindako SOMBRAS izeneko film laburra ikusteko aukera izango dugu hari eskaini nahi diogun omenaldi bereziaren adierazle. **Juanmi Gutierrez** Larrotxeneko lehenengo ikus-entzunezko irakaslea izan zen. Irakaskuntzan eta dokumentalgintzan oso konprometitua, urte asko eman zituen Larrotxeneko motorra izaten.

Elkarlanak

Elkarlanean jarraitzen dugu hiriko erakunde eta eragile ezberdinekin eta aurtengo kolaboratzaile nagusiak **Musikene eta Olatu Talka** izan dira.

Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiarekin elkarlanerako sinatutako hitzarmena erabat onuragarria da bi aldeentzat eta horren adibide dira honako produkzio hauek:

Diego Sabiok, Musikeneko ikasleak, Valerie Quiroga Larrotxeneko ikasleak zuzendutako A ESCONDIDAS film laburraren musika konposatu du eta Jon Bienzobasek, Patxi Razquinen CERES REVELADA film laburrarena.

Olatu Talkari dagokionean, Pilulen ekoizpena nabarmendu behar dugu. Aurtengo lantaldea 8 pertsonak osatu dute eta 10 lan egin dira, inoiz baino gehiago. Iaz lanketa

oso berezia izan bazen kontakizun digitalak eta transmedia hizkuntzak ikertu zirelako, aurtan berriz sortze-prozesuaren gainean hausnartu da "Cinema Collage" eta "Found Footage" tekniken bitartez. Adierazi baita ere, martxan jartzen ari garen **Kontakizun Digitalen laborategian** lan bakoitzaren jarraipena eta aholkularitza burutu dela.

2018ko uzta

Halaber, eta iaz gertatu zen moduan, aipatu aurtengo uzta ere hain dela oparoa ezen **uztailaren Sean Intxaurrendon emanaldi bat** antolatu behar izan dugula egindako lan guztiei lekua egin ahal izateko. Uzta horretatik koprodukzioen kopurua nabarmendu nahi dugu bereziki. Izan ere, marka guztiak hautsi ditugu aurtan 20 koprodukzio baino gehiagotan parte hartuz. Bai aholkularitza aldetik, bai materiala mailegatuz baita lantaldeak osatuz.

Larrotxenek **etorkizunari** baikor begiratzen dio. Urtez urte, Larrotxene Bideok hirian eta ikus-entzunezkoen munduan duen **erreferentzia izaera** sendotzen ari baita, **sorkuntza, erakusketa** eta **prestakuntza** ardatz nagusi dituelarik.

Hori guztiaren adierazle, iazko Larrotxeneko ekoizpenek festibaletarako **20 aukeraketa** baino gehiago izateaz gain, **5 nazioarteko sari** jaso zituzten. Hona hemen 2018ko festibalen eta sarien zerrenda:

EL NUEVO VECINO (2018)

- Premio Etxean Shortuak 2018 DONOSSKINO. 2018
- Humor en Corto. Arrigorriaga. 2018

12:00 BIKEA (2018)

- Lekeitioko Zine Bilera. 2018
- Premio al mejor cortometraje realizado por colectivos Begiradak-Las Otras Miradas 2018

Y...¿POR QUÉ NO? (2018)

- Great Message International Film Festival, Pune, India, 2018
- China International New Media Short Film Festival, SHENZHEN, China, 2018
- Parana Internacional Films Festival. Entre Ríos, Argentina, 2018
- Mejor Documental. Bengal's International Film Festival. BENGALURU , India, 2018

- Indian Cine Film Festival Greater Noida (Delhi NCR) (Uttar Pradesh), India, 2018
- Festival Cine Zaragoza 2018
- New York City International Films Infest Festival. (New York), EEUU, 2018

TXIMELETAREN HEGALDIA (2018)

- IKUSKA. Pasaia film laburren jaialdia (Pasaia) 2018.
- XIX. FESTIVAL ASIER ERRASTI (Eibar) 2018

ZE PENA ROBIN (2018)

- XIX. FESTIVAL ASIER ERRASTI (Eibar) 2018

CREANDO NUBES (2018)

- 4º certamen fotografía y cortometrajes FYC (Fármacos y Conducción) 2018

ONGI ETORRI (2018)

- Errenteria Film Laburren Jaialdia 2018
- Begiradak-Las Otras Miradas 2018

DE REPENTE FRITZ (2018)

- Begiradak-Las Otras Miradas 2018

EL REGALO DE DANIEL (2018)

- IX Muestra de cortometrajes de la Asociación de Cine Bardem. Montalbán de Córdoba. Andalucía. 2018

VUELA MATEO (2018)

- 6º FIRENZE FILMCORTI FESTI (Firenze, ITALIA) 2019. Directorial Debuts Terzo Premio.

EL TIGRE (2019)

- 6º concurso europeo de creación audiovisual CTL 59 segundos. Premio al mejor trabajo de creación audiovisual.